

## OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2023IPLE0014

**Eguna:** 2023-10-31

**Ordua:** 19:00 – 18:28

**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa ..... Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo ..... Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide ..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena ..... Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre ..... Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez ..... Udal talde euskal sozialistak

### Bertaratu ez direnak

- Ainara Vazquez Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero ..... Astigarragako EH Bildu
- Manex Aldalur Beldarrain ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos ..... Astigarragako EAJ-PNV

### Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

### Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezeko udal kontu-hartzailea

### Aztergaiak

1. 2023ko irailaren 26ko akta onartzea
2. Kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatean: KALD-0012 espedientea
3. 2023ko soldata igoera
4. 2024. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak
5. Astigarragako Herri-baratzeen emakida eta erabilera arrautzeko erregelamendua. Hasierako Onarpena.
6. 7.2 Ipintza Gurutzegain H.E.U.-ren Xehetasun-Azterketa. Behin-betiko onarpena
7. Euskadiko Kaleratzeak Stop plataformaren mozioa, Astigarragan alokairuaren merkatuko prezio garestiek tenkatutako eremuak definitzeko buruzkoa eta horietan estatuko etxebizitzaren legeak ezartzen dituen mugak gauzatzeko buruzkoa.
8. UEMAREN mozioa, Euskararen aurkako oldarraldiari buruzkoa
9. Informazio, galdera eta eskariak.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

### Esan-eginak eta erabakiak

Alkateak adierazi du udal osoko bilkurara Euskadiko Kaleratzeak Stop plataformaren kideak bertaratu direla, 7. aztergaiako mozioa aurkeztu dutenak, eta proposatu du lehenengo gai hori aztertea, deialdiaren ordena aldatuz. Aho batez onartu dena.

### **7. Euskadiko Kaleratzeak Stop plataformaren mozioa, Astigarragan alokairuaren merkatuko prezio garestiek tenkatutako eremuak definitzeari buruzkoa eta horietan estatuko etxebizitzaren legeak ezartzen dituen mugak gauzatzeari buruzkoa.**

Alkateak Euskadiko Kaleratzeak Stop plataformako kideei pasa dio hitza. Horiek adierazi dute beharrezkotzat jotzen dutela Astigarraga zona tenkatutako eremua izendatzea, horrek etxegabetzeak saihestuko dituelako. Baina, gainera, etxebizitza eskubide bat dela kontuan hartuta, beste neurri batzuk ere hartu beharko lirakeela: jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea, alokairuaren prezioa mugatzea, oinarrizko etxebizitzaren kanona aplikatzea...

Jarraian, mozio hau aurkeztu dute onartua izan dadin:

#### **“JUSTIFIKAZIOA**

*Astigarraga bizitegi-larrialdiko egoeran dago, eta 2 etxebizitza alokatzeko eskaintzen diren higiezinaren kopurua ez da nahikoa udalerraren eskaerari erantzuteko. Etxebizitza horiek 1.400 euroko batz besteko errentan eskaintzen dira (kontsultatutako 7 higiezin-ataritak lortutako datuak), eta Etxebiden 516 familia-unitate daude izena emanda alokairu-eskatzaille gisa.*

*Etxebiden izena emandakoen artean, etxebizitza-premia berezia duten familiak, guraso bakarreko familiak edo ardurapeko adingabeak ez dituzten familiak eta independizatu nahi duten eta batez beste 116.468 euroko diru-sarrerak dituzten artean, hilean 1372 euro, 35 urtetik beherako gazteak daude. Horren ondorioz, familia horiek merkatuko alokairu urriak ordaintzeko egiten duten ahaleginak (batez besteko soldataren %100 alokairura bideratuko litzateke diru sarreraren %30 soberan gaintzen du, eta, beraz, beharrezkoa da hemen eskatzen ditugun neurriak hartzea, alokairuen prezioak mugatzea edo egungo alokairuen epeak luzatzea, besteak beste, eremu horietan are gehiago espekulatzea eragotziz eta Euskadin kontratuak amaitzeagatik milaka etxegabetze isila edo judiziala sahietuz.*

*Etxebizitzaren legearen 18. artikulua hau jasotzen du: “1. etxebizitzaren arloan eskumena duten administrazioek, beren araudi erregulatuarean eta dagozkien eskumenen esparruan ezarritako irizpide eta eta prozeduren arabera, bizitegi-merkatu tenkatuaren eremuak deklaratu ahal izango dituzte...”. Beraz, udalerriek ekimena har dezakete etxebizitza gaitan dituzten eskumenen esparruan, Eusko Jaurjaritzari eskatzeko udalerrri hori osorik edo udalerrri horretako zenbait eremu tentsiopeko eremu izendatzeko, legean aurreikusitako bi baldintzetako bat betezen bada. Hona hemen baldintza horiek:*

*“a) Hipotekaren eta alokairuaren kostuaren batz besteko karga aurrekontu pertsonalean edo bizikidetzaren unitatean, gehi oinarrizko gastu eta hornidurak, familien batz besteko diru-sarreraren edo batz besteko errentaren ehuneko hogeita hamar baino handiagoa izatea.*

*b) Etxebizitzaren erosketaren edo alokairu-prezioa tenkatutako etxebizitzaren merkatu-eremu izendatu aurreko bost urteetan dagokion autonomia-erkidegoko kontsumo-prezioen indizearen hazkunde metatuaren ehuneko baino ehuneko hiru puntu handiagoa izatea gutxienez”*

*Eustatek argitaratutako Astigarragako familien batz besteko diru-sarrerari buruzko azken datuen arabera, batz besteko alokairua gehi oinarrizko gastuak eta hornidurak Astigarragako familien batz besteko diru sarreraren %30 baino gehiago dira eta, beraz, ez dago eragozpenik udalerrria tentsiopeko eremu izendatzeko.*



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

Neurri horiek gure etxebizitza legeak eta lege hori garatzeko erreglamenduek aurreikusten dituzten beste neurri batzuekin batera ezarri behar dira, hala nola jenderik gabeko etxebizitzak beste alokairu-eredu horietara ihes egitea sahiesteko, gizarte-premiak asetzen ez dituzten arren. Era berean guztiz beharrezkoa da alokairu sozialak sustatzeko baliabideak nabarmen handitzea eta udalen eta eusko Jaurlearitza arteko koordinazioa hobetzea etxebizitzaren arloan.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

### **MOZIO ARRUNTA**

Astigarragako udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlearitari eskatzen dio, udal honek eskatu ondoren, udalerrri osoa edo eremu jakin batzuk, etxebizitzaren legean horri buruz ezarritako baldintzak betetzen dituztenak, etxebizitzarako tenkatutako eremu izendatzeko, Estatuko Etxebizitzaren Legeak eremu horietarako jasotzen dituen neurriak lehenbailehen ezartzeko helburuarekin.”

Alkateak hartu du hitza eta azaldu du mozioa bozeramaile batzordean aztertu zela eta aho batez onartu. Gaineratu du, betetik, udalak etxe hutsen azterketa egin berri duela (HAPO berriaren lanketaren barruan) eta, bestetik, Astigarragak betetzen dituela *etxebizitzarako tenkatutako eremu izendatzeko baldintzak, eta h* udalaren asmoa dela urte bukaera baino lehenago Jaurlearitzan txostena eskatzea, eta horretarako udal-idazkaria eta hirigintzako aholkulari juridikoa gaia aztertzen daudela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta mozioa aho batez onartu da.

#### **1. 2023ko irailaren 26ko akta onartzea**

. Akta aho batez onartu egin da.

#### **2. Kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatean: KALD-0012 espedientea**

Alkateak kreditu aldaketaren zergatia eta nondik norakoak azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

**“Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

#### **Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	FINANTZA GASTUAK	3.000,00	1.000,00	2.000,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	1.874.663,33	337.150,00	1.537.513,33
3	FINANTZA GASTUAK	1.000,00	1.000,00	0,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	317.377,00	59.040,00	258.337,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2196040,33</b>	<b>398190</b>	<b>1797850,33</b>

#### **kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA	1.719.300,00	255.890,00	1.975.190,00



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

	ZERBITZUETAN			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	77.000,00	103.000,00	180.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	228.395,60	39.300,00	267.695,60
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2024695,6</b>	<b>398190</b>	<b>2422885,6</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### 3. 2023ko soldata igoera

Alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

**Lehena.-** 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi 2.a) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko gehikuntza gehigarria onartzea. Igoera hori aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean dauden ordainsariei eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

**Bigarrena.-** Aipatutako 31/2022 Legearen 19. Bi 2 b) artikuluan xedatutakoari dagokionez, 2023an Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaerarekin lotutako % 0,5eko beste igoera gehigarri bat egiteko aukera aurreikusten da. Baina Ministro Kontseiluaren erabaki bidez horri buruz xedatzen dena beteko da, dagokion unean, eta EUDELe horren guztiaren berri emango dizue, unean-unean.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### 4. 2024. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak

Alkateak azaldu du Eskualdeko Taxi Batzordeak proposatu duela 2024erako tarifak ez igotzea, baina litekeena dela aurrerago aldatu behar izatea, araubide bereziko eremu bat sortu daitekeelako (Donostia, Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errentetia eta Astigarraga hartuko dituen), eta horrela balitz tarifak armonizatu behar direlako. Ondoren, obrak eta zerbitzuak batzorde informatiboaren irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

**Bakarra.-** 2024rako autotaxi zerbitzuaren taxi tarifak ez igotzea eta ondorioz, honako hauek aplikatzea:

2024KO TARIFA HIRI BARRURAKO					
TARIFA 1(*)			TARIFA 2(**)		
Tarifa txikiena	Egindako Kilometroa	Itxaron ordua	Tarifa txikiena	Egindako Kilometroa	Itxaron ordua
6,0993	1,2967	24,8831	7,2700	2,0771	39,1061

Tarifa txikiak berez dakar 1,5 km-ko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia.

(\*)Lanegunetan 07:00etatik 22:00etara.

(\*\*) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomikoak eta herriko araudiak erabakitako jaiegunetan 7:00etatik 22:00etara; bai larunbatetan, baita 2023ko



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

*abenduaren 24 eta abenduaren 31n ere.”*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### **5. Astigarragako Herri-baratzeen emakida eta erabilera arrautzeko erregelamendua. Hasierako Onarpena.**

Alkateak azaldu du udalak onartuta duela herri baratzen erregelamendua, baina bere egunean horiek erabiltzeko eman ziren lizentziak bukatzeaz daudela, eta udal-idazkariak adierazi duela hobe dela horiek emakidatzat hartzea, eta horrek eskatzen duela erregelamendua egokitzea. Ondoren, erregelamenduaren nondik norakoak azaldu ditu, eta hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*“Lehenengoa.- Astigarragako herri-baratzeen emakida eta erabilera arautzeko Erregelamenduaren aldaketari hasierako onespena ematea.*

*Bigarrena.- Erregelamendua jendaurrean jartzea 30 eguneko epean. Erabakia GAOn argitaratuko da, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko. Era berean, Araudiaren testua Udalaren web-orrian argitaratuko da, eta espedientea Astigarragako Udaleko Hirigintza Sailean kontsultatu ahal izango da, bulego orduetan.”*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### **6.-7.2 Ipintza Gurutzegain H.E.U.-ren Xehetasun-Azterketa. Behin-betiko onarpena**

Alkateak espediente honen izapidearen nondik norakoa azaldu ondoren, hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*“Lehenengoa.- Astigarragako HAPoko 7.2 "IPINTZA GURUTZEGAIN" egikaritzeunitatearen xehetasun-azterlana behin betiko onartzea, udal-arkitektoaren 2023ko urriaren 19ko txostenean ezarritakoaren baldintzapean.*

*Bigarrena.- Aurreko erabakian aipatzen den xehetasun-azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, argitaratu aurretik Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan gorde dezan.*

*Hirugarrena.- Behin betiko onspenaren erabakiaren edukia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web-orrian argitaratzea, hirigintza-plana aipatutako erregistroan gordailatu dela adierazita.*

*Laugarrena.- USUKOAR PROMOCIONES SLri jakinaraztea eraikuntza- eta urbanizazioproiektuek 2023ko urriaren 19ko udalarkitektoaren txostenean ezarritako baldintzak bete beharko dituztela.*

*Bosgarrena.- Erabaki hau USUKOAR PROMOCIONES SL enpresari jakinaraztea, eta udal-arkitektoaren 2023ko urriaren 19ko txostena bidaltzea.”*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### **8.- UEMAREN MOZIOA, EUSKARAREN AURKAKO OLDARRALDIARI BURUZKOA**

Alkateak mozioa aurkeztearen arrazoiak eman ondoren, UEMAREN MOZIOA hau aurkeztu du onartu izan dadin:



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### **Oldarraaldiaren aurrean, euskararekin bat**

*Egun hauetan jakin dugu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin dituela Eusko Jaurlaritzaren 179/2019 Dekretuaren hainbat artikulua. Udal Legea garatzen du dekretuak, eta hizkuntza ofizialen erabilera arautzen du. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak uztailean Udal Legeari buruz emandako epaiaren ostean, Dekretuaren aurka egin du berriro Auzitegi Nagusiak, beste bi epairekin. Epai hauek euskararen ofizialtasuna bera ere zalantzan jartzen dute, askotan Udal Legeak arautzen ez dituenak ere aurreikusiz, modu prebentiboan.*

*Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalarekin onartu zuen epaitegiek baliogabetu nahi duten Udal Legea, eta azken Inkesta Soziolinguistikoak ere argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hauek euskararen biziberritzearen aurkakoak ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoak ere badira. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen dute auzitan.*

*Horren aurrean, honako hau adierazpen hau egin nahi du Udalak:*

- *Kezkaz eta larritasunez hartu ditugu euskararen indarberitze-prozesuaren aurkako azken epaiak, guztietan berbera izan baita norabidea. Epai hauek traba dira urteotan euskara sustatzeko bidean adostasun handiz eraiki den orubearentzat.*
- *EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiak bete-betean eragiten diete UEMAk eta bertako kide diren udalek urte askoan jorratutako lan-ildoei: hizkuntza-plangintzari, kontratazioari eta euskara lehenesteari, adibidez. Udalak helburu nagusien artean du udalerrian euskara normalizatzea eta herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta sententzia hauek oztopoa besterik ez dakarte. Hori jarri baitu ezbaian auzitegiak: euskararen normalizazioa. Euskara lehenestearen aurka egin du, gaztelania baztertzea delakoan. Ez da halakorik, ordea: minorizatutako hizkuntza aurrerabidera eramatea da, eskubide guztiak bermatzeko.*
- *Sententzia horiek bereziki eragiten diete udalerrri euskaldunei, horietan ari baitira hartzen euskaraz funtzionatzeko neurri gehien. Hori oztopo bikoitza da euskararen indarberitze-prozesuarentzat: batetik, galga jartzen diete euskara normalizatzeko neurri aurreratuenei, eta normalizazio-prozesuak badauka horren premia; bestetik, euskarak indar handiena duen lurralde-eremuei eragiten diete, eta gune horien premia gorria du euskarak. Udalerrri euskaldunek ezinbestekoa dute lege-babesa.*
- *Udalerri euskaldunetan, hainbat arlotan aurrera egin du euskarak hamarkada hauetan, baina oraindik bada zertan eragin. Udalean bertan ere urrats handiak egin ditu euskarak, eta gaur egun, zerbitzu-hizkuntza ez ezik, lan-hizkuntza nagusia ere bada euskara. Horretan jarraitzeko asmo sendoa du Udalak, eta aurrerantzean ere martxan jarriko ditu bere esku dauden neurri eta plangintza guztiak. Euskara da gure udalerriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko konpromisoa dauka Udalak. Justiziazkoa da.*
- *Udalak, asmo hori garatu ahal izateko, ezinbestekoa du lege-orube sendoa. Hortaz, Udalak dei hau egin nahi die lege-araudia garatzeko eskumena duten gainerako erakunde guztiei: norik ere eskumenekin eta elkarlana oinarritzat hartuta, urra dezagun bidea euskararen indarberitze-prozesua lege-babes sendoarekin hornitzeko.*
- *UEMAk bat egin du Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4an Bilbon antolatutako manifestazioarekin, eta epai hauek beste arrazoi bat jarri dute kalera ateratzeko: euskararen aurkako oldarraaldia eten egin behar da. Horregatik, UEMako kide den heinean, euskararekin bat egiteko eta Bilboko mobilizazioan parte hartzeko deia egiten die Udalak herritarrei.*

María zinegotziak hitza hartu du eta adierazi bere taldearen babes osoa dutela, eta alde bozkatuko dutela.

Patxi zinegotziak ere hitza hartu du, eta honek adierazi du deseroso sentiarazten duen gaia dela. Berak kontra bozkatuko duela, ez duelako partekatzen testua eta ez dagoelako ados euskara administrazio-hizkuntza bakarria izatearekin. Gaineratu du elebitasunaren aldekoa dela, baina horretarako beste tresna batzuk erabili behar direla. Bukatzeko adierazi du epaiarekin ados dagoela, eta bere ustez kasu honetan ez dela behartzen herritarrei gaztelaniaz hitz egitera.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta mozioa onartu egin da, aldeko 8 botoekin (Astigarragako EH Bildu eta Astigarragako EAJ-PNV taldeetako kideena) eta kontrako boto batekin (Udal talde euskal sozialistarena).

### **9.- Informazio, galdera eta eskariak.**

#### **a.- Batzorde eta lan-saioen eguna eta ordutegia**

Alkateak adierazi du uztailan jakinarazi zela astearteetan izango direla batzorde informatzaileak eta lan-saioak, eta udal gobernu taldekideek horretara egokitzeko zailtasunak izan dituztela, eta orain ez dutela hori aldatuko, baina kontziliaziari begira horiek ez direla 9:30ak baino lehenago hasiko. Gaineratu du ulertzen dutela liberatuta ez dauden zinegotziek ez dutela erraza lana eta zinegotzi lanak uztartzeko, baina horretarako baimenak eta antzerakoak dituztela.

Maria zinegotziak hitza hartu eta adierazi du ahaleginak egiten daudela, eta lan-baimenak izapidetzen daudela.

#### **b.- Obrak**

Alkateak hurrengo asteetan udalerrian hasiko diren obren berri eman du: *ibai-parkeko eta Sagardo plazako* jolas eta aisiladi eremuak egokitzea, Oialume-Martindegi eremuko saneamendu-sarea handitzea, brigadarentzako lokal berria egokitzea eta ibai-parkea handitzea.

#### **c.- 2024ko udal aurrekontua**

Alkateak azaldu du goizean egin den ondare eta ogasun batzordean aurkeztu direla, eta asmoa dela azaroaren 28ko osoko bilkuran hasierako izaeraz onartzea, baina aurretik 2 aste dituztela udal taldeek ekarpenak egiteko eta hilak 21ean ogasun batzordea egingo dela horiek onartu eta diktaminatzeko.

#### **d.- A\* Nahi dugun Astigarragarantz – herri gogoetak.**

Alkateak azaldu du dagoeneko prozesu guztiak hasi direla, eta webgunea martxan dagoela.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko urriaren 31n

Kontxi Urdampilleta Santamaria  
Ordezko idazkaria